

¡KORAPILLUA!



Zoramen baten azpiyan nago
 Triste ta buru makurka,
 Begiyak berriz daukazkit beti
 Leku batera agurka;
 Amoriyozko biyotza daukat
 Sendo barrundik ojuka,
 Eta burua pentsamentuzko
 Etsaiyarekin muturka.

Su argi, eta alaitsu ura
 Penaz ari zait illuntzen,
 Argatik zaizkit begiyetatik
 Malko mintsuak isurtzen,
 Nik maite nuben chori umilla
 Gaur ez det inon ikusten,
 Nonbait gaišua kaiolan sartzez
 Noski da gogor izutzen.

Len zan neretzat udaberriko
 Lorien gisa pozgarri,
 Eta ¿orain zer?... orain maitati
 Biyotz onaren ozgarri;
 Maitasunezko zoramen ura
 Ezin liteke ekarri,
 Baldin berriro jartzen ez banaiz
 Itur zar arren egarri.

Chori eskuan ustez neukana
¿Joan alzait bada betiko?
Berriro emen ikusi gabe
Ez det errazki etsiko;
Maitasunezko sentimentuak
Ez nau zokuan utziko,
Baizikan beti oso zakonki
Maitasuna zait biziko.

Egur ezean gisa arki naiz
Sua bizitu eziñez,
Daukadalako barrun guztiya
Betea gauza samiñez;
Ni ibilli naiz chori on arren
Ondoren gogoz ta ziñez,
Ibilleraren bidez nekeak
Jartzeko triste ta miñez.

Koskor gogor bat egiña daukat
Barrunen jau iñillua!
Nere aurretik joan zaidalako
Maite detan iñpillua;
Estaltzen doa maitasun gozo
Biyotzeko katillua,
Askatzen errez ez dana egin
Zait neri iñkorapillua!

JUAN IGNAZIO URANGA.

